

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Zambranako udalerriko "Antzinako Zambrana Siloaren" UE-02 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programari

Alkatearen 2020ko urriaren 30eko 194/2020 Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Gasteizko Egitu, Arquitectura, Ingeniería y Urbanismo SLP enpresak egindako Zambranako hiri antolamendurako plan orokorraren "Antzinako Zambrana Siloaren" UE-02 egikaritze unitatea urbanizatzeko jarduketa programari, Zambranako udalerriko arau subsidiarioen 10. aldaketa puntuala behin betiko onetsi ondoren.

Espediente hori jendaurrean jartzen da hogeii egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edonork aukera izan dezan egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko, bat etorritik ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 156. artikuluan xedatutakoarekin, programa horretan jasotako funtsezko elementu hauekin:

1. ANTZINAKO ZAMBRANA SILOA - UE-02 URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMAREN EDUKIAREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK ETA URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMAREN DOKUMENTAZIOA ETA EDUKIA

– MEMORIA. Justifikazio memoria, burutzapenaren programazioa adieraziz (A dokumentua), eduki honekin:

- Aurrekariak, sarrera eta zioen azalpena; programa formulatzeko ekimena; eta programaren beharren eta egokitasunaren justifikazioa.

- Programaren xedea eta eremua.

- Hirigintza esparrua.

- Eduki tekniko-urbanistikoa. Urbanizazio aurreproiektua.

- Eduki juridiko-urbanistikoa.

– URBANIZAZIO AURREPROIEKTUA (B dokumentua).

– PLANOAK. Jarduera hartzen duten egikaritze unitateen informazioaren eta mugaketaren planoak (C dokumentua).

– TITULARREN ZERRENDA. Jardueraren xede diren lurzatien planoak eta ondasun eta eskubideen jabeen zerrenda (D dokumentua).

– BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN AZTERLANA. Ekonomia eta finantza bideragarritasuneko azterlana, jarduketari dagozkion ondasun eta eskubide guztien balorazioarekin (E dokumentua).

2. URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMAREN ALDERDI NAGUSIAK:

– Formulatzeko ekimena eta sustatzailea: Zambranako Udala.

– Programaren eremuari buruzko datuak: UE-02. Antzinako Zambrana Siloa.

– Egikaritze unitateen mugaketa: Egikaritze unitate bakarra definitzen da.

– Lurzoruaren sailkapena: Hiri lurzoru finkatugabea.

– Lurzoruaren kalifikazio orokorra: Bizitegi lurzoru (udal araubideko etxebizitza tasatua).

- Eraikigarritasuna
- Azpizona pribatuak: 930 metro koadro eraiki.
- Azpizona publikoak: S. U. R. 5 ordenantza.
- Egikaritze araubidea: Publikoa.
- Jarduketa sistema: Desjabetzea. Hala ere, lurzati pribatuen titulartasuna udalari dago-kionez jada, eta gainerako lursaila lehendik zeuden jabari eta erabilera publikoko ondasunez osatuta dagoenez, eta halakotzat mantentzen direnez, ez da beharrezkoa izango prozedura hori hastea, eta emaitza Jabetza Erregistroan inskribatuko da.
- Egikaritzeko epeak eta aldi baterako programa:
 - Berdinbanatzearen proposamena aurkezteko epeak: ez da eskatzen adierazitakoaren ara-bera; hortaz Jabetza Erregistroan inskribatzen da urbanizatzeko jarduketa programa onetsi ondoren.
 - Ondoriozko orubeetako urbanizazio eta eraikitze obrak egiteko epeak:
 - Urbanizazio proiektua aurkezteko: 2 hilabete hirigintzako jarduketa programaren behin betiko onespena argitaratzen denetik.
 - Urbanizazio obrak gauzatzeko: etapa bakar batean, gehienez ere urtebeteko epean, urba-nizazio proiektua behin betiko onesten denetik.
 - Ondoriozko orubeen eraikuntza: lehen okupazioko lizentziak emateko, urbanizazio obrak jasota egon beharko dira.
 - Beste bizileku batzuk emateko programa: ez dira kontuan hartzen.
 - Laga beharreko lursailak kokatzeko proposamena: II.02 – Antolamendu xehatua planoko dokumentazio grafikoaren arabera.
 - Urbanizazio lanen kontrata gauzatzeko aurrekontua: 14.571,78 euro.

Dokumentazio guztia interesdunen eskura egongo da Zambranako Udalaren egoitza elek-tronikoan:

https://udalenegoitza.araba.eus/portal/entidades.do?error=1&ent_id=49&idioma=1.

Zambrana, 2020ko azaroaren 2a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI